


Zerbitzu karta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Sarrera

Zerbitzu karten bitartez informazioa eman nahi dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen zerbitzuen ezaugarriei buruz, eta horiek kalitatez emateko hainbat konpromiso ere hartu nahi ditugu.

Halako ekimenei esker eta zure laguntzarekin, erabiltzaileen beharrak asebetetzera bideratu nahi ditugu Foru Aldundiaren zerbitzu publikoak, eta horiek hobetzen aurrera jarraitu nahi dugu.

Markel Olano Arrese
Gipuzkoako diputatu nagusia

Imanol Lasa Zeberio
Gobernantzako eta Gizartearekiko
Komunikazioko Departamentuko
foru diputatua

Xedea

Udalekin, herritarrekin eta herri erakundeekin harremanetarako eta elkarlanerako bideak irekitzen ditugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) departamentuetako politika publikoen diseinua, garapena eta ebaluazioa, partaidetza sustatuko dituzten tresnen bidez garatu ahal izateko; azken helburua da gobernantza demokratikoa GFaren nortasunaren ezaugarri bat izatea.

Horretarako, baliabideak eta tresnak eskaintzen dira herritarren, herritar eragileen eta udalen partaidetza kultura sustatzeko; baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketan hura txertatzeko ere.

Zein zerbitzu eskaintzen ditugu?

Zein dira gure konpromisoak?

Nola neurtzen dugu?

	Gipuzkoako udalei parte-hartze prozesuen estrategia diseinatzeko, urtean jasotzen ditugun eskaeretatik gutxienez bi aholkularitza ematea.	Gipuzkoako udalei egindako aholkularitzen kopurua.
	Aholkularitza bakoitzaren gogobetetze maila orokorra neurtzea eta horren balorazioa 7tik gorakoa izatea (10etik).	Aholkularitza bakoitzeko udaletako pertsonen gogobetetze balorazioaren batez bestekoa.
Politika publikoetan parte-hartzea ahalbidetzeko AHOLKULARITZA ematea	Udalek, herritar erakundeek eta herritarrek Aldundiaren eskumenekoak diren politika publikoetan parte hartzeko egin dituzten eskaera guztiei aholkularitza ematea (herri kontsultak, deliberazioko prozesuak).	Jaso ditugun eskaeren kopurua eta gauzatutako aholkularitzen ehunekoa.
	Aholkularitza jaso duten pertsonen gogobetetze maila orokorra neurtzea eta horren balorazioa 7tik gorakoa izatea (10etik).	Aholkularitza jaso duten pertsonen gogobetetze balorazioaren batez bestekoa.
	Herritar erakundeekin prestakuntza beharrei buruzko azterketa bat egitea eta beraiei zein herritarrei trebakuntza ikastaro bat eskaintzea, urtean behin.	Eskaini ditugun prestakuntza-ekintzak.
	Aldundiko arduradun politikoei eta langileei gutxienez urtean bi prestakuntza ikastaro eskaintzea.	Eskaini ditugun prestakuntza-ekintzen kopurua.
Parte-hartze kultura sustatzeko eta zabaltzeko PRESTAKUNTZA ematea	Udaletako arduradun politiko eta langileei Erakundeen arteko Espazioaren bidez, gutxienez urtean bi prestakuntza ikastaro eskaintzea.	Eskaini ditugun prestakuntza-ekintzen kopurua.
	Prestakuntza jaso duten pertsonen gogobetetze maila orokorra neurtzea eta horren balorazioa 7tik gorakoa izatea (10etik).	Prestakuntza jaso duten pertsonen gogobetetze balorazioaren batez bestekoa.
	Aldundiak burutu dituen eta diruz lagundu dituen partaidetzako prozesuen urteko txosten bat argitaratzea.	Argitaratzen ditugun partaidetzako prozesuen txostenak.
Herritarren parte-hartzeari buruzko INFORMAZIO-DOKUMENTAZIOA sortzea eta zabaltzea	Urtean parte-hartzeari buruzko hiru aldizkari elektronikoko argitaratzea.	Argitaratzen ditugun aldizkari elektronikoen kopurua.
	Dibulgazio-gida bat argitaratzea urtean behin, gutxienez.	Argitaratzen ditugun dibulgazio- giden kopurua.
Parte-hartzeari buruzko TOPAKETAK antolatzea	Urtean parte-hartzeari buruzko topaketa bat gutxienez antolatzea.	Egindako topaketen kopurua.
	Gipuzkoako Erakunde arteko Espazioan, urtean gutxienez hiru saio antolatzea.	Egindako saioen kopurua.
Parte-hartzeari buruzko elkarrizketa eta lankidetzak ahalbidetzeko GUNEAK sortzea	Saio bakoitzeko gogobetetze maila orokorra neurtzea eta horren balorazioa 7tik gorakoa izatea (10etik).	Parte-hartzaileen gogobetetze balorazioaren batez bestekoa.
	Gipuzkoako herritar erakundeekin urtean gutxienez saio bat antolatzea.	Egindako saioen kopurua.
	Saio bakoitzeko gogobetetze maila orokorra neurtzea eta horren balorazioa 7tik gorakoa izatea (10etik).	Parte-hartzaileen gogobetetze balorazioaren batez bestekoa.
Partaidetzako prozesuak abian jartzeko DIRULAGUNTZAK eskaintzea	Gipuzkoako udalei parte-hartze prozesuak abian jar ditzaten urtero laguntza ekonomikoa bideratzea.	Dirulaguntzen aurrekontua eta onartutako eskaeren kopurua.
	Herritar erakundeek Gipuzkoan parte-hartze prozesuak abian jar ditzaten urtero laguntza ekonomikoa bideratzea.	Dirulaguntzen aurrekontua eta onartutako eskaeren kopurua.
	Dirulaguntzen deialdietan parte hartu duten pertsonen gogobetetze maila orokorra neurtzea eta horren balorazioa 7tik gorakoa izatea (10etik).	Deialdietan parte hartu duten pertsonen gogobetetze balorazioaren batez bestekoa.
DELIBERAZIO PROZESUAK antolatzea eta garatzea	Antolatzen ditugun deliberazio prozesuak burutzea, dagokien protokoloa aurretik sortuz.	Antolatu ditugun deliberazio prozesuen kopurua.
HERRI KONTSULTAK antolatzea eta garatzea	Antolatzen ditugun herri kontsultak burutzea, dagokien protokoloa aurretik sortuz.	Antolatu ditugun herri kontsulten kopurua.
Politika publikoen kudeaketa hobetzeko BESTELAKO PARTE HARTZE PROZESUAK antolatzea	Aldundiaren eskumenekoak diren gaietan herritar erakundeek eta herritarrek parte har dezaten partaidetza prozesuak sustatzea eta antolatzea.	Antolatu ditugun parte hartze prozesuen kopurua.
	Partaidetza prozesu bakoitzeko parte-hartzaileen gogobetetzearen maila orokorra neurtzea eta horren balorazioa 7tik gorakoa izatea (10etik).	Parte-hartzaileen gogobetetze balorazioaren batez bestekoa.
Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru ERREGISTROA	Erregistratuta dauden herritar erakunde guztiei, Aldundiak parte-hartzeari buruzko sustatzen duen edozein ekimenaren informazioa helaraztea.	Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izena eman dutenei bidaltzen zaizkien komunikazioak.
Gipuzkoako Foru Aldundiaren AURREKONTUAK herritarren partaidetzaren bidez egitea	Aldundiaren gastuen partiden ehuneko edo zenbateko baten erabilpena "partaidetzako aurrekontuen" prozeduraren bidez erabakitzea.	Partaidetzako aurrekontuen bidez erabaki den gastuen partiden ehuneko edo zenbatekoa. Parte hartu duten pertsonen kopurua.
Partaidetzari buruzko SAREAK bultzatzea	Partaidetzari buruzko bi saretako kide izatea gutxienez eta haien helburuak eta jarduerak ezagutaraztea.	Aldundia partaidetzari buruzko kide den sareen kopurua. Erakundeekin burututako sare ezberdinen aurkezpen-bileren kopurua.
Herritarren parte-hartzea ahalbidetzeko BALIABIDE INFORMATIKOAK sortzea eta eskaintzea	Gipuzkoako udalei partaidetzako on-line plataforma eskaintzea.	On-line plataformaren erabiltzaileen kopurua.
	Erabiltzaile bakoitzaren gogobetetze maila orokorra neurtzea eta horren balorazioa 7tik gorakoa izatea (10etik).	Erabiltzaile bakoitzeko gogobetetze balorazioaren batez bestekoa.
	Herritarren partaidetza ahalbidetzeko sare sozialen erabilpena sustatzea.	Parte-hartze prozesu bakoitzeko argitalpenen kopurua.
Berrikuntza LABORATEGIAK	Urtero gutxienez bi proiektu esperimental sortzea.	Proiektu esperimentalen kopurua.

Araudia eta egiturak

Herritarren partaidetzari buruzko 2018ko azaroaren 23ko 5/2018 Foru Araua.

2017ko urtarrilaren 17ko 1/2017 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa sortzeari buruzkoa.

25/2017 Foru Dekretua, abenduaren 19koa, Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua arautzekoa.

Partaidetzarako Herritar Erakundearen Foru Erregistroan inskribatzeko jarraibideak ematen dituenari buruzko 2011ko urtarrilaren 14ko R- 3/2011 Foru Dekretua.

Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea (5/2018 Foru Arauaren V. Tituluaren III. Kapitulua).

Partaidetza, kexak eta iradokizunak

Gipuzkoako Foru Aldundiak badu kexak eta iradokizunak egiteko sistema bat, zeinaren bitartez herritarrek aukera izan baitezakete beren iritzia bidaltzeko karta honetan eskainitako zerbitzuez eta bere gain hartutako konpromisoez.

Kexak eta iradokizunak Foru Aldundiaren edozein erregistrotan edo posta bidez aurkez daitezke, edota Internet bidez, web orrialde honetan:

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus>: **Kontsultak, kexak eta iradokizunak**.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 30 egun balioduneko epea du erreklamazioei erantzuteko.

Eskertuko genizuke zerbitzuak hobetzen parte hartuko bazenu, bidaliko dizkizugun gogobetetze inkestak betez.

Herritarren eskubideak eta betebeharrak

2005eko apirilaren 26ko 26/2005 Foru Dekretuak (GAO, 101. zk., 2005-05-31) 4. artikuluan Foru Aldundiarekiko harremanetan herritarrek dituzten eskubideak zerrendatzen ditu:

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/arreta/herritarren-eskubideak>

Herritarrek Foru Aldundiarekiko dituzten betebeharrak helbide honetan jasotzen dira:

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/arreta/herritarren-betebeharrak>

Konpromisoak betetzea

Zerbitzu karta honetako konpromisoak zenbateraino betetzen diren ezagutzeko, kontsultatu urteko emaitzak honako web orri honetan:

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/arreta/zerbitzu-kartak>

Zerbitzu karta honen ardura duen unitatea

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako zerbitzua arduratzen da zerbitzu karta prestatzeaz, Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazioaren Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean.

Helbide eta ordutegiak

Helbidea:

Gipuzkoa Plaza z.g., 20004, Donostia

Telefonoa:

943 112 111

Aurrez aurreko arreta:

Astelehenetik ostiralera, 08:30-14:30

Telefono bidezko arreta:

Astelehenetik ostiralera, 08:30-14:30

Arreta telematikoa:

partaidetza@gipuzkoa.eus

Webgunea:

<http://www.gipuzkoa.eus/partaidetza>

